K106 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 10/05/11 03:21 Página 1

MUTRIKUKO HERRI-ALDIZKARIXA
2011ko maiatza - 106. zenb.

KALAPUTXI

OLATZ ALDEKO AITONAK

Paskoal *eta* Martzelino

San Ixidro.
Olatz.

KORRIKA 17, ARGAZKITAN

M22 HAUTESKUNDEAK

IBILALDIA BOGA! AZKEN TXANPA

LAN ISTRIPUAK

ZURE GORPUTZA BIRMOLDATU

Estetika eta Terapia Institutoa

apain

Fisioterapeuta tituluduna

Beheko Plaza, 5
Tel.: 943 60 42 29
20830 Mutriku

UDABERRIKO PROMOZIOA,
Gorputz tratamentu bakoitzeko
2 Galileo sesio oparitzen dira.

GORPUTZEKO TRATAMENDUAK
Zelulitisaren aurka
Erreafirmatzailea
Estrien aurka
Bularrak sendotzeko
Zirkulazioa hobetzeko + Presoterapia
Lokatzez
Oinarrizko olioaz
Indiba
Fisioterapia
Errehabilitazioa

Aurpegiko azala berriztatzeko tratamenduak: Indiba / Laserra
Galileo fitness
Erditze prestaketa
Drenaje linfatikoa
Depilazioak: Beroa, Hotza, Elektrikoa, Laserra
Mikropigmentazioa
Pedikura-manikura
Betileetako permanentea eta tintea
Makilajeak

FABRIKA ETA ERAKUSKETA



OPARIA
sukaldearekin laba

logelarekin koltxoia

akilape
Mijoa Industrialdea z/g MUTRIKU Tfnoa: 943 60 43 34
www.akilape.com

Mota guztietako altzariak eta egur lanak egiten ditugu
ESKATU AURREKONTUA !!

K106 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 10/05/11 03:21 Página 3

aurkibidia

Informaziua	4
Zeuk esan	5
Puri-purixan	6
Bi hitzetan	9
Korrika argazkitan	12
Ibilaldia	15
Karenka	16
Lan giruan	18
Bertsuak	19
Zorion Agurrak	20
Argazki zaharrak	21
Agenda	22

Udal hauteskundeak.

Badator, badator... boga! Ibilaldia.

Paskoal eta Martzelino, Olatz aldeko aitonak

Lan istripu guztiak ekidin daitezke.

Argitaratzailea: Karenka komunikazio elkartea
Barrenkale,12 behea - 20830 Mutriku.

Telefonoa: 943 603468 / 635 748 393
e-maila: kalaputxi@topagunea.com
Bloga: kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea: Mutrikuko Udala
Kolaboratzaileak: Iñigo Andonegi, Josu Ituarte
Tirada: 2.200 ale
Lege Gordailua: SS-787/01
ISSN: 1579-4792
Inprimategia: GERTU. Oñati
Banaketa: Kalaputxi

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Kalaputxik eskerrak eman nahi dizkizue aldizkari hau kaleratzea posible egin duzuen guztioi.

Mutrikuko Udaleko
Kultura eta Euskara Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako Sailordetza

K106 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 10/05/11 03:21 Página 4

telefonoak

Medikuak, anbulantziak, botikak

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00
Zaintzako botikak:
Otxagabia (Mutriku) 689 58 57 59
Apraiz (Mutriku) 630 05 50 97
Zalduegi (Deba) 669 26 22 01
Burgoa (Deba) 667 33 88 90

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa 943 60 70 48
..... 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Itsas etxea 943 60 34 00
Turismo bulegoa 943 60 33 78
Bake Epaitegia 943 60 70 49
Alde Zaharra eraberritzeko zerbitzua 943 60 34 18
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz Frontoia 688 64 31 80
Ur partzuergoa 902 30 22 22
Zakarrak eta trasteak 943 70 07 99
Anai Arte 943 60 34 10

Irakaskuntza

Goizeko Izarra ikastola 943 60 36 75
San Miguel ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 36 27
Udal euskaltegia 943 60 30 94
Musika eskola 943 60 37 80
Haur eskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

Ansola Taxia 635 672 383
Anton Taxia 666 221 999
Xabi Taxia 656 289 026
Pesa autobusak 902 10 12 10
Eusko Trenbideak 902 54 32 10
Loiuko aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Iberdrola 901 20 20 20
Kofradia 943 60 32 00
Posta zerbitzua 943 60 30 44
Gasolindegia 943 60 32 10

ordutegiak

Autobusak

MUTRIKUTIK → DONOSTIARA

Astegunak	7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30
Zapatuak	10:00 / 16:30
Jai egunak	10:00 / 19:30

DONOSTIATIK → MUTRIKURA

Astegunak	8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30
Zapatuak	11:30 / 19:30
Jai egunak	11:30 / 20:30

MUTRIKUTIK → BILBORA

ZERBITZU BERRIA MAIATZAREN 16tik AURRERA
TXANBOLINGO ERROTONDAKO GELTOKITIK

BERRIA

06:25 / 07:25 / 15:25

BILBOTIK → MUTRIKURA

14:10 / 18:10 / 20:10

MUTRIKUTIK → DEBA - MALLABIA

Astegunetan: 7:15etik 21:15era orduro.
Jai egunetan: 8:15etik 21:15era orduro.

MUTRIKUTIK → ONDARROARA

Astegunetan: 6:55etik 20:55era, orduro.
Jai egunetan: 7:55etik 20:55era orduro.

Trenak

Orduro ateratzen dira adierazitako ordu tartean.

DEBA → DONOSTIA → DEBA

Debatik	**6:44** – 7:44 - ...- **21:44**
Donostiatik	**5:47** – 6:47 - ...- **20:47**
Jai egunetan	**8:44etan lehenengoa.**

DEBA → BILBO → DEBA

Debatik	**6:43** – 7:43 - ...- **20:43**
Bilbotik	**6:00** – 7:00 - ...- **20:00**
Jai egunetan	**8:43etan lehenengoa.**

K106 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 10/05/11 03:21 Página 5

KONTZENTRAZIOA

Edozein entrenatzailek bere jokalariei eskatzen diena da, edo gogo handiz irakurtzen dugun agiriak dioena sakonago heltzeko hartzen dugun postura, kontzentrazioa. Gaur egun Gorenaren erabakia eta Konstituzionalak har dezakeenaren zubi erdian inoiz baino beharrezkoagoa dena. Mutrikun ordea kontzentrazio gehigarri bat dugu esku artean, maiatzaren 22tik aurrera beharko duguna, egoerari beste bide bat eman nahi baldin bazaio behintzat, 'Kontzentrazio Gobernua'. Legealdi bat bukatu ordurako ateratzen den beste hitza 'auditoria' da. Udala egoera honetan egoteko zer egin ote dute, non ote dira diruak galderei erantzun nahian sortzen zaizkigun jakin nahiak. Auditoria baino 'biabilidadea' litzateke ordea egin beharrekoa nire ustez, zeren ia sarrerak besteko gastuak baldin badituzu, eta egun halaxe ditu Udalak, esango didazue zer gelditzen zaigun inbertsioetarako, ezta beharrezkoak diren proiektuak egiteko ere kanpotik hel daitezkeen diruak inbertsioetan gauzatzeko. Horrexegatik diot biabilidadea eta kontzentrazio gobernua direla bi zutabeak. Baina horrek benetako jarrera aldaketa bat eskatzen duela ere esango nuke. Zenbat aldiz sentitu zarete identifikatuak 'etxean otso kanpoan mantso' esaldiarekin. Erretratu horrek eman ditzakeen apurrak, ematen baldin ditu behintzat, eman dituela esango nuke. Umiltasun eta zorroztasun gehiago ere behar direla esango nuke niri irudikoz. Ez baitu balio proiektu txikitzaile horrekin ados ez nagoenez, hortik datorren guztia edo horrekiko bila daitezkeen ahalbide guztiei ezetza luzatzea. Zertxobait integratzaileago izatea ere ez litzaiguke gaizki etorriko guztioi ere. Jar dezadan adibide bat. Imajina ezazue GI-638 errepidea Alkolea muturreraino joan beharrean artifizialki eraikitako tunel baten bitartez eroan ezkero sortuko lituzkeen aukera desberdinak: Errepidea askozaz ere erosoagoa izango litzateke, Alkolea ondoan aisialdirako gune bat prestatu ahal izango litzateke, aparkalekuak barne. Egun oso gutxi bisitatzen den Talaixa guneak jende gehiago erakarriko luke. Foru Aldundiak duen 'talaia' programaz baliatuz ekimen sendoago bat gauzatzeko aukera edukiko genuke. Mutriku-Deba lotzeko bidegorriari beste zati bat erantsiko genioke. Laranga auzoak behar duen autobus geltokia ganoraz eraikitzeko aukera emango luke. Arbeko surf guneak behar dituen aparkaleku berriak egokitzeko aukera izango genuke, eta noski, errepidea mozten denean bakarrik lasai ibiltzeko aukera, egun guztietara eroango genuke. Donajakue bidea egiten dutenei ere herritik pasatzeko aukera emango genieke agian. Pentsa zenbat instituzio desberdin inplikatu daitezkeen halako ekimenean, edo bestela esanda, Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako ekimen zehatz batek zenbat aukera desberdinen ahalmena irekiko lukeen. Handitasunik gabe, umiltasunez eta bereziki zehaztasunez lor daitezkeenak. Posibilismoz bete naizela berriro ere esango didazue agian. Beharbada bai, baina planteamenduak mahai gainean jarri eta bat egiten ez dugun bitartean jai dugu, are eta gehiago sortu, bildu eta batek daki, agian 'batu gaitezen' ere dioten batzuk legez kanpo uzteko gogo bizia dagoenean. Izan ere demokrazia bera oso 'bertikala' jarri baitigute oraingoan.

Alberto Gorritiberea

Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

K106 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 10/05/11 03:21 Página 6

EAJ PNV

Badatoz berriro udal hauteskundeak eta alderdi bakoitzak berari gustatuko zitzaiokeen herria marrazten du hauteskunde programan. Ilusioz betetako hitzak eta irudiak dira. Herritarrok ere bozkaren bidez herri hori marrazten dugu, alderdi edo pertsona bat aukeratuz.

EAJ-PNVk, Mutrikuarren bizi kalitatea hobetu, herritarrei entzun eta herritarren zerbitzura egongo diren alkate eta zinegotziak aurkeztu ditu. Ideiak eta lan egiteko gogoa, konprometitua eta arduratsua; herritarren arazoak antzeman, bereak egin eta irtenbidea emango diena. Hori da EAJ-PNVk eskaintzen duena.

Etorkizuneko Mutriku eraikitzeko, ezinbestekoa da alderdi politiko zein pertsona guztien arteko harremana, konpromisoa eta elkarlana. Mutriku helburu bezala jarrita, herritarren bizi kalitatea hobetu behar dugu, Mutriku, bizitzeko herri hobeago bat eginez; harro sentiaraziko gaituen herri bat bilakatuz.

Parte hartzeko bideak planteatzen ditugu datorren legealdira begira. Udalak herritarra entzun behar du, eta herriak udala. Konprometitzen gara herritarrekin zein elkarteekin maiztasunez biltzera.

Mutrikuren aldaketa nagusia turismotik etorriko da. Turismoaren aholkularitza kontseilua sortuko dugu, turismoarekin zer ikusia duten eragile guztien parte hartzearekin. Turismo alorrean erronka eta aukera asko ditugu, Geoparkea eta Santiago bidea kasu. Badugu lana. Beharrezkoa da Mutriku herri atraktibo bat egitea.

Mutrikuren proiektu estrategikoek udalaren bultzada behar dute. Portua, Mutriku-Sasiola, eguneko zentroa edo autopistako irteera, adibidez, ezinbesteko proiektuak dira herriaren garapenerako. Alderdi guztien laguntza eskatuko dugu, alderdikeriak alde batera utziz, mutrikuarrak baitira gure lehentasuna.

Zabaldu ditugu herrian gure proiektuetako batzuk, fotomontaia eta guzti. Igogailu berriak herriko goialdean eta anbulategira igotzeko; komenduko lorategiak herriarentzako zabaldu; bidegorri zein espaloi desberdinak, eta batez ere, guretzako lehentasuna duen Merkatu plaza berritua eta umeentzako leku estali bat. Gure etorkizuneko Mutriku hemendik marrazten dugu, baina ez dira gure ideia eta proiektu bakarrak. Oraindik helaraziko dizuegu gehiago ere.

Gure hauteskunde programa egiterako orduan, herriko zenbait eragile zein pertsonekin bildu gara. Ez guk nahi genukeen guztiekin, baina, bilera hauek oso aberasgarriak eta interesgarriak izan direla esan behar dugu. Ideia asko entzun ditugu, kritikak ere bai, baina denak positiboki adierazita, beraz. Eskerrik asko.

Krisiak gogor astindu du Mutriku, eta udalaren lana larritasun gehien pasatzen daudenei laguntzea izan behar da. Horretarako herrian lanpostuak sortzeko eta posible den neurrian enpresa berriak sortzeko beharrezko neurriak hartu behar dira. Gure lehentasuna enpresa berriak sustatzea izango da, herrian lana eta enplegua sortzeko.

Lerro hauetan, ideia orokorrak eta asmoak jarri nahi izan ditugu, proiektu konkretuetatik haratago ere lan egiteko formak ere asko dutelako esateko. Guk marraztutako herriarekin bat bazatoz, badakizu.

koadrila afariak, bazkariak, bataioak,
eguneroko menua

PAGOAGA S.A.
iturgintza - berogintza - gasa
igeltsaritza - aroztegia
Tel.: 943 74 02 79 - 943 74 05 12
Faxa: 943 74 35 65 / e-mail: pagoagasa@euskalnet.net
San Antolin, 13 - 20870 ELGOIBAR

K106 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 10/05/11 03:21 Página 7

b+i
MUTRIKUKO BERDEAK ETA INDEPENDENTEAK

B+i hitzetan,

<< Mutriku bizi bizian>>

Alderdi, ordezkari, udal talde denak sinesgaitzak dira, gauzak berdin jarraitzen dute, udalak bere onura soilik bilatzen du herritarrari bizkarra emanez, hauteskundeak ez dute ezertarako balio, Mutrikuko gauzak ora pro nobis…. Pentsaera guzti hauei aurre egiten jarraitu nahi dugu. Udal ordezkaritza herritarren zerbitzura egon behar duela benetan sinesten dugu **herri-onura ezinbestekotzat harturik**.

Lau urte ondoren gauza batzuk lortu ditugu, beste batzuk bidean gelditu dira eta beste batzuetan aldiz ez dugu orain arte arrakastarik izan. Baina ez ditugu ahaztu. **Ez dugu ahaztu Mutrikuko herria gure lehentasun haundiena dela**. Ez dugu burutik kendu beste herri eredu bat suspertzea posible dela. **Gu eta gure ondorengoek gustora bizi diren herri bitxi eta miresgarri hau harrotasunez sentitzea nahi dugu**. Guzti hau gu denon ardura da.

Pasa diren lau urte hauetan **gure indarra udalbatza osoan bi zinegotzi eukitzeak ematen duena izan da, ez gehiago ez gutxiago**, gure udaltalde osoko lanaren ispilu. **Gardentasuna, informazioa, hurbiltasuna eta partaidetza ireki eta aktibo bat** bultzatzen saiatu gara herri onura behin eta berriz aldarrikaturik. Hauxe da politikari buruz daukagun ulermena. **Errespetua, solidaritasuna, eta enpatia** ardatz bezala daukan gizarte zoriontsu baten fruitua. Herritar bakoitza zehatz mehatz ezagutu beharra dauka udaleko atal guztiak. Aukera eta boterea izan behar du hauetan parte hartzeko, ez hauteskundeetan soilik. Eta aukerarekin batera hauen funtzionamenduaren “ardura” konpartitu beharra dauka. Bestela jai izango dugu.

Mutrikuk ia 6 milloi euroko zor maila bati aurre egin behar dio. Hainbat legealdiren ondoren batzen joan dena. 1.200 euroko zorra biztanle bakoitzeko. Honen aurrean mirariric ez daude. Hiriginтzak ez gaitu egoera hontatik aterako. Udalak gastatzen duen euro bakoitza, gutako bakoitzaren euroa, zehaztasunez begiratu beharra daukagu benetako **lehentasunak kudeatuz eta dauzkagun baliabideei al den eta etekin gehien aterata**.

Azpiegitura erraldoiak gauzatu (Portu Berria, Mutriku Sasiola, Poligono haundiak…) **eta barkuak edota enpresa berriak noiz etorriko diren zain egon beharrean nahiago dugu herriko enpresa, txikiak batez ere eta ekintzaileak babestea. Bai banakakoak bai elkarteak. Gure altxorra**. Era berean, Mutriku **lanpostu “berde”** ugariren iturri izan daiteke baita ingurumenarekin daukagun erlazio berezia kontuan izanda: nekazaritza ekologikoa, artisau arrantza, ingurumen eta ondarearen zaintza eta kudeaketa, birziklapena, energia berriztagarriak eta abar luze bat.

Azkenik**, Berriak egin baino gauzak ongi mantentzea nahiago dugu**. Mutrikuk mantenimendu lan ederra behar du orokorrean, berdeguneetik hasita eta daukagun ondare publiko guztietara ailegatuz. **Herriko ondasun guztien inbentario zehatz** batek lan honetan lagunduko liguke gauzak ondo zaintzea bezalaxe. **Eta honekin batera elkarguneak**. Harremanak sendotzen dituzten elkarguneak. Herri barnean eta inguruko auzoetan. Honetarako dirua baino “auzolana” ikusten dugu.

Berdiak Bai, Berdinak ez

Bixok Bat
Eraikuntza lanak
San Miguel kalea 15 (2. behea)
20830 MUTRIKU -Gipuzkoa-
Tfnoa.: 943 60 40 37 / Mobila: 656 70 74 16
E-maila: bixokbat@euskalnet.net

K106 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 10/05/11 03:21 Página 8

bildu mutriku

MUTRIKU ALDATU NAHI DUGU

Duela hilabeteak herriaren diagnostikoa egin genuen: Gainbehera etorritako herria, azken urteetan ekimen politiko txikia izandakoa; herritarrek urruti sentitzen dute udala. Ondorioa: herriak aldaketa behar du; herritarrek aldaketa eskatzen dute.

Gero, lanean jarri eta bederatzi ataleko programa egin dugu, Mutrikuri eta mutrikuarrei helburu herrikoiak jarrita. Herritar langilearengan, herritar gaztearengan edota herritar edadetuarengan jarri dugu gure pentsamendua.

Baina gurea ez da programa itxia izango. Uste osoa dugu herritarren iritzia beti hartu behar dugula kontuan. Herritarrek aukeratuko gaituzte, baina ez guk nahi duguna beste azalpenik eman gabe egiteko. Programakoak aurrera eramaten saiatuko gara, udalaren egoera ekonomiko oso-oso txarrak aukera ematen digun neurrian; behintzat, aurrerago egiteko moduko bidean utziko ditugu. Horren hitza eman dezakegu, bai horixe.
Diputazioari eta Jaurlaritzari, ahaztuta gaituzten erakundeak izanik, Gipuzkoako eta Euskal Herriko beste edozein herriren eskubide eta beharrak ditugula ozen adieraziko diegu.

Ezkerretik, abertzaleak eta soberanistak. Euskal Herrian sinesten dugulako. Ezkerretik, herrikoiak eta partehartzaileak. Mutrikun sinesten dugulako.

Euskara izango da gure lan-hizkuntza. Guk egiten ez badugu, nork egingo du? Udalaren obligazioa izango da herritarrei euskaraz bizi ahal izateko erraztasunak ematea, eta horixe egingo dugu. Gainera, UEMArekin batera, Euskal Herri mailan euskarak oraindik irabazteko dituen esparruak euskalduntzeko konpromisoa hartzen dugu.

Hirigintza arloa etxeak egitea baino gehiago dela sinisten dugulako, etxebizitza politika soziala bultzatuko dugu, herritarren interesak enpresa diruzaleen aurretik jarrita. Gainera, ekipamenduak (igogailu, parke, zerbitzu...) noiz edo noiz egin ahal izateko bidea egingo dugu, behar diren gestioak eta negoziaketak burutuz.

Arlo soziala benetan indartuko dugu. Mutrikuren zailtasun fisikoak gainditzeko neurriak hartuko ditugu, mutrikuarrok herrian zehar errazago mugitu ahal izateko, batez ere adinduak eta eragozpen fisikoak dituztenak. Horren adibide, herrian zehar mugitzea erraztuko duen autobus txikia.

Herri ekimeneko bai kultur bai kirol taldeekin koordinazioa eta elkarlana sustatuko da. Mutrikuarren sorkuntzarekin konprometituko gara, eta gure herriaren dinamikarako joera gure herri-nortasuna sendotzeko erabiliko dugu. Mutriku zerbait bada mutrikuarren lanari esker delako.

Partaidetza etengabea nahi dugu, agintariak eta herritarrak harremanetan egoteko. Talde-lana izango da gure ezaugarri negusienetako bat, bakarkako lanari ihesi, udaletxean egongo garen zinegotzien artekoa, baina horien inguruko ekipoarena ere bai. Eta gure helburuekin bat egiten duten guztiak hartuko ditugu lagun hurrengo lau urteetan. Mutriku BILDU nahi dugulako.

BILDU hauteskundeetan izango da, besteekin ustezko aukera berdintasunean. Milaka euskal herritar ahotsik gabe utzi nahi izan gaituzte. Ordea, ez dute lortu. Orain, entzun egingo gaituzte, gu ez garela espainiarrak, gu euskaldunak garela! Abertzalaleak eta ezkertiarrak! Eta, noski, ez dugu ahaztuko ez gaudela guztiok gure Herrian, eta horiek gogoan hartuta egingo dugu lan, egunero-egunero, Euskal Herri berri bat eraikitzeko.

(Programa osoa ikusteko: www.bildu.info/mutriku)

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
Barrenkale, z/g
943 60 35 44

PIKUA
www.pikua.es
JATETXEA
LANDETXEA
apartamenduak
bezeroentzako aparkalekua
eguneroko menua
berezitasuna txerri txikia
(enkarguz erreta, edo frijitua)
Laranga auzoa · Mutriku · Tel. 629105733 · luis@pikua.es

K106 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 10/05/11 03:21 Página 9

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO KANPORAKETA MUTRIKUN

Maiatzaren 8an hasiko dira 2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren kanporaketak. Maiatzaren 14an Mutrikun jokatuko dira bi kanporaketa, Zabiel kultur etxeko ganbaran, goizeko 11,30etan eta 17,30etan hasita. Bertsolariak, Oihana Iguaran, Jokin Uranga, Egoitz Eizagirre, Mikel Arrillaga, Joseba Andoni Agirre eta Gorka Maiz, goizeko saioan; arratsaldekoan, Beñat Alberdi, Unai Gaztelumendi, Zigor Iriondo, Nerea Elustondo, Iban Urdangarin eta Nahikari Gabilondo.

Goiz eta arratsaldeko saioen artean bazkaria antolatuko da bertsozale, bertsolari, parte-hartzaile eta bertso-eskolen arteko giroa sendotzeko. Txapelketaren informazio gehiago www.gpuntua.com helbidean izango da: saioak, bertsolariak, faseak, sarreren salmenta… Sarrerak internetez salduko dira soilik txapelketako webgunean, eta guztiak saltzen ez diren kasuan soilik jarriko dira lehiatilan salgai. Bazkaritarako txartelak ere modu berean salduko dira.

Gipuzkoako Bertsolari txapelketaren aurtengo edizioan, gainera, mutrikuarrok izango dugu ordezkaririk: Xabi Astigarraga bertso lanetan, eta Eneritz Azkue epaile lanetan. Ez dira Mutrikuko saioetan izango, baina hurrengo emango dugu beren lanaren berri. Zorte on bioi.

680 KILOTAN TIRAKA HASI DUTE DENBORALDIA

Mutriku Sokatira Taldea, Euskal Herriko Txapelketan sartuta dago buru belarri. Aurtengo denboraldia, maiatzaren 7an, Galdonan, hasi zuten. 680 kiloko mailan ekin diote denboraldiari taldea osatzen duten 12 mutilek. Ohikoa den bezala maila horretan hiru tiraldi egingo dituzte. Bigarren saioa maiatzaren 15ean, Beritxun izango da. Azken tiraldia non egingo den oraindik erabakitzeke dago. Mutrikuarrez gain, beste sei talde ariko dira lehian: Goierri eta Gaztediko bi taldea, Erandio eta Getxo. Iaz herrikoak hirugarren gelditzea lortu zuten. Aurten, ordea, gorago begira ari dira: “Iaz baino hobeto egitra da helburua. Lehen postua lortzeko ahalegina egitea da asmoa”.

ESKERRIK ASKO

Korrika 17an parte hartu duzuen guztiei mila-mila esker: kultur zein kirol taldeei, gizarte eragileei, herri mugimenduei, alderdi politikoei, Osinalde harategikoei, Potero okindegikoei, Gazte-txekoei… herritar guztiei. Ez zarete makalak, ez horixe!

OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

Edari biltegia
Iñarrairaegi
Tel./faxa: 943603938 · Etxekoa: 943603893 · Sakelekoa: 609413306 · "Mendi azpi" · 20830 MUTRIKU

K106 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 10/05/11 03:21 Página 10

ASTE SANTUAN, BISITARIAK GORA

423 lagunek bisitatu dute herria Aste santuan. 2010arekin alderatuz gero, %74ko gorakada suposatzen du horrek. Horiek dira turismo bulegoak luzatu dituen datuak. Bulegotik pasatu den jendeari dagozkionak dira.
Ohikoa den bezala, bistarien artean ugarienak Kataluniarrak izan dira. “Espainiar estatuko etorreren %38a suposatu dute. Haien atzetik Madrildarrak izan dira ugarienak, % 12a”, adierazi dute turismo bulegotik. Euskal Herriko puntu ezberdinetatik etorritakoen artean, Gipuzkoa eta Bizkaitik etorritakoak izan dira gehiengoa, baina nafarrak ere ez dira atzean gelditu. Beste herrialdeetik etorritakoen artean, berriz, frantziarrak izan dira ugarienak.
Etorritako jendearen artean bisita gidatuek arrakasta handia izan dute: “Hirigune Historikoa eta Bentalekua museorako bisita eta Flyscharen ibilbide osoaren bisita bete egin ziren zapatu santuan. Gainontzeko egunetan, Bentalekua museoan, 15 lagunek egin dute bisita gidatua”.

UGAITZ MUGERZA, URREZKO AIZKOLARIEN BANAKAKO LIGAXKAN

Sailkapen saioetan aurrera egitea lortu ondoren, Ugaitz Mugerzak urrezko aizkolarien demako ligaxka erabakiorrean sartzea lortu du. Azken kanporaketa gainditzea “zail” izango zuela uste zuen Iturritzakoak, baina emaitza bestelakoa izan zen. Izan ere, Lazkaon, bera izan zen onena. Elite mailakoen ligaxkan B taldea egokitu zaio, Juan Jose Lopez Azpilikueta eta Aitzol Atutxarekin batera. “Oraingoan mirari bat edo beharko dut aurrera egiteko. Baina ez dut etsiko. Ahal dudan guztia egingo dut aurrera egiteko”, aitatu du aizkolari gazteak. Aratz Mugerza, bere aldetik 23 urte azpikoen mailan ari da. Orain arteko kanporaketak gainditu ditu, baina aurrerantzean ere ez du bide xamurra izango.

MADALENAKO ETXEBIZITZAK AZKEN TXANPAN SARTUTA

Madalenako etxebizitza sozialak herritarren esku egotera pasako dira urtea amaitu baino lehen. Lagapen eskubideko 113 etxebizitzak egokitu zaizkien herritarrek maiatzean bisitatuko dute bakoitzari egokitutakoa. Bisitan sinatuko dute eroskетarekin aurrera egiteko asmoa dutela ziurtatzen duen dokumentoa eta eskriturak sinatzeko hitzordua jarriko dute. Prozesu horren berri emarten duen eskuttiza jasoa dute interesatuek, eta haren arabera, etxebizitzak hirugarren hiruhilabetean pasako dira herritarren esku egotera. Bestalde, alokairu sozialeko etxebizitzen zozketarako onartuak izan diren herritarrek ere jaso dituzte eskutitzak. Haren atzetik zozketarako egokitu zaien zenbakia jasoko dute, zenbakiarekin batera, zozketa eguna eta ordua jakinaraziko zaie.

UME ZEIN NAGUSI KALERA ATERA DIRA BERTANEN EKIMENARI ESKER

Apirilaren 30ean herriak bizitasun berezia hartu zuen. Bertanek martxan jarritako ekimenari esker, umeek Beheko Plazan eurentzako prestatutako espazioarekin gozatu zuten. Nagusiek, berriz, tabernetan tragoarekin batera pintxoak eskuratzeko txartelak jasoak zituzten egunerako. Eta horri esker asko izan ziren herriko tabernen bueltan ibili zirenak. Kaleak jendez bete ziren, eta nahiz eta arratsaldean eguraldia zatartu, giro ezinhobea egon zen egun guztian.

K106 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 10/05/11 03:21 Página 11

bildu mutriku

1 Joseba Palenzuela Arrieta

2 Arrate Uranga Mendizabal

3 Iban Arrunategi Rico

4 Jaione Peña Urreisti

5 Jose Antonio Agirregomezkorta Uranga

6 Olatz Azpiazu Egaña

7 Joxemari Etxaburu Aizpurua

8 Ainara Burgaña Aranburu

9 Maribel Urkiri Arruti

10 Aitor Andonegi Belaustegi

11 Idoia San Martin Alberdi

12 Aitor Itza Iparragirre

13 Saioa Alkorta Lejardi

14 Joseba Burgaña Osa

15 Esther Azkue Elezgarai

16 Joakin Mari Larrañaga Arkotxa

eman botoa

bildu

ESKERRIK ASKO!

eskal

ZORI

hitzamftjaujaburumendimenditaldeatxaturangaxaketaldeakirol
zineforummrksanmigelgoizekoizarrasaturrangureizafabrikakolab
zeingeixokuadrilaezkerabertzaleaeabertaninstitutukoikasleakin
gureametsadantzataldeaerraldoienkonpartsasorginerrekaeskal

roldegiasokatirataldeanaturtaldeaberdeak+iameikutzdanokbat
abanaiarteantzerkitaldeaamnistiarenaldekomugimenduamuga
:institutukolangileakidurreargazkitaldeabertsoeskolaartetailerra
:aladatxantxangorrikalatxoribelaelkarteaarrauntaldeakalaputxi

K106 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 10/05/11 03:21 Página 14

BIZTU



BERDIAK BAI BERDINAK EZ

ORDUA DA

B + i *Mutrikuko Berdeak eta independenteak*

Galdutako altxorrak berreskuratzeko bideak zabaltzen

Nork daki zein den bide egokiena? Jarraitu behar ez ditugun bide batzuk ezagutzen ditugu jadanik

Elkarlanean sakondu sentsibilitate desberdinak bultzatuz, babestuz eta maitatuz

Zu zara gure lehentasuna

K106 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 10/05/11 03:21 Página 15

Jaione Peña

ibilaldia 2011ko koordinatzailea

Elkarrizketa egiteko orduan, Ibilaldiko batzar batean harrapatu dugu, nola ez. Ibilbideko taldean ari direnekin zegoen, hain zuzen, baina beste edozeinekin egon zitekeen. Ibilaldia 2011ko koordinatzailea izanik, Jaione Peña ikastolen jaiak eskatzen duen antolakuntza guztiaz arduratu da ia urtebete. Azken txanpan sartuta, den-dena ondo lotuta uztea gelditzen da.

Mutrikuar bat hainbeste ondarrutarren artean? Zelan ba?

Badira 18 urte Ondarroa aldetik nabilela. Urte askotan hantxe bizi izan naiz, eta hantxe bizi nintzelako, nire haurrak Zubi Zahar ikastolan hasi ziren. Nahiz eta orain Mutrikun bizi, egia da nire eguneroko bizitza, batez ere, Ondarroan egiten dudala; nire hartu-eman gehienak hantxe ditudala.

Eta orain, Ibilaldia, ate joka.

Antolakuntzaren %90 eginda dago. Baina hor dago %10. Gauza asko gelditzen dira egiteko, eta denbora gutxi dago. Pozik gaude, lanerako gogoarekin, hurbil ikusten dugulako eguna.

Zenbat talde daude beharrean Ibilaldian? Eta zenbat jende?

12 talde daude, gutxi gorabehera. Eta askotan, azpitaldeak, beste horrenbeste arduradunekin. 130 lagun inguru gaude lanean. Azken txanpan zertxobait gehiago batuko dira: egunak berak eskatzen dituen zereginetarako hainbat talde egiten gaude: muntaketa-desmuntaketa, garbitasuna, segurtasuna, trafikoa, seinalizazioa,.... Bi aste lehenago hasiko garena da egunean bertan lan egin behar duten talde guztiekin batzen, dena ondo antolatzeko, dena ondo zehaztuta uzteko, eguna heltzen denerako, bakoitzak bere esparrua ondo definituta eduki dezan.

Bizkaiko jaia izanda, mutrikuar asko inplikatu dira, komertzioak adibidez.

Mutriku mugan gelditzen da, eta herri txikia izanik eta alboan Ondarroa edukita, eguneroko bizitzan sekulako harremana daukagu Ondarroarekin. Jende asko doa Ondarroara erosketak egitera edo lanera. Azken batean, bizimodua Ondarroan egiten duten mutrikuar asko daude. Gainera, lotura nahikoa ona dago herri bietako bizilagunen artean. Bestalde, Zubi Zahar ikastolan Mutrikuko ikasle, irakasle eta guraso kopuru polita dago, eta horrek gehiago hurbiltzen gaitu. Komertzioei gagozkielarik, euskararen aldeko apustua egin dute komertzioek ere. Euskararekiko kontzientzia handia dago herri txikietan. Mutrikun eta Ondarroan ere bai, baita laguntza emateko orduan ere.

Era askotara lagundu du Mutrikuk.

Azpiegitura mailan Mutrikuko herria ikutzeko premia izan dugu, Berriatuan modura, hurbiltasunagatik. Lurzoru, poligono, hondartza,.... Ahalik eta aukera gehienak erabiliko ditugu aparkalekurako.

Zer topatuko dute mutrikuarrek?

Giroa, baina lana ere bai. Mutrikuarrak ere lanean izango ditugu.

Nola etortzea gomendatzen duzue?

Ondarroak ez digu aukerarik ematen aparkalekuak edukitzeko, eta arrazoi horregatik Ondarroatik kanpo jarri behar izan ditugu aparkaleku horiek. Ibilaldia hurbildu ahala, hauxe izango da gure eskaera: jendeak zerbitzu publikoak erabiltzea. Mezu hori Euskal Herri osoan zabalduko dugu, baita Mutrikun ere. Autobusak noiznahi izango dituzte joan-etorrirako, egun guztian, lantzaderak jarriko ditugu eta. Kotxea hartu beharrik ez dute edukiko, eta antolaketa erraztuko digute.

K106 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 10/05/11 03:21 Página 16

LAN ISTRIPU GUZTIAK EKIDIN DAITEZKE

*2010 urtean, estatistiken arabera , 80 langile hil ziren lan istripuetan. Gaixotasun profesionalak estatistiketatik kanpo geratzen dira, amiantoak eragindako 24 heriotzak kasu. Apirilaren bukaeran Zine Forum taldeak **La Plaza de la Musica**, amiantoak eraildako 8 lagunen inguruko testigantzak jasotzen dituen dokumental hunkigarria eskaini zigun, injustizia baten lekuko.*

Urtea hasi denetik 18 langile hil dira, gutxienez, beraien lanpostuetan Euskal Herrian.

Jon Basurko eta Aitor Andonegi, bakoitza bere lantokian, lan istripuen prebentzioko komitean LAB sindikatuko delegatuak dira.

Lan istripuen prebentzioan, zuen enpresan zer egiten duzue?

Lehenengo eta behin, istripuak ekiditu egin behar dira, aurrea hartu behar zaie. Horretarako lankideekin egon eta lanpostuak aztertu behar dira. Arazoak identifikatu, lanposturen batean arazoren bat balego, berehala moztu behar da. Konponbideak bilatu behar dira.

Hilean behin biltzen gara enpresan Lan istripuen prebentziorako komitean. Enpresariak, Mutuak (Mutualia, Prevencilan...) hiruhilean behin eta langileen ordezkariak. Enpresa handia denean, Lan prebentzioko teknikaria ere egoten da. Mahai hauetan gehienbat absentismo laboralaz hitz egiten da eta istripuetaz gutxi. Enpresaren aldetik istripuak izkutatzeko joera daukate.

Enpresak behartuta daude urtero prebentziorako diru bat bideratzera. Mahai horretan hitz egiten dute diru horiek zertan inbertitzeko asmoa daukaten.

Prebentzio Legeak, Osalan, Mutualia... bezalako "tresnak" sortu dira, baina hala ere istripuak darraite, gaixotasun laboralak ez dira errekonozitzen. Non huts egiten da zuen ustez?

Istripuak, gaixotasun laboralak... enpresarentzako diru kostuak dira. Segurtasuna traba bat, gainkarga bat da beraientzat.

Nik lan egiten dudan enpresan esaterako, TS Fundiciones-en, Prebentzioko teknikaria enpresako akzioduna da. Ustez gure osasuna zaintzen dutenak, Mutuak, enpresaren parte dira eta guztien zeregin nagusia enpresari ahalik eta gastu gutxien sortzea da. Honen ondorioak langileek jasaten dituzte beren osasuna eta biziarekin ordainduz askotan.

Nire enpresan lau langile hil dira lanean zeuden bitartean. Azkena duela urte gutxi, beste mutrikuar bat prebentzioko delegatu zelarik. Orain dela gutxi beste bati hanka moztu zion makina batek... hasieran enpresarengandik hitz politak jaso bazituen ere, epaileak epaia eman eta geroztik, behin eta berriz epaia errekurritu eta errekurritu aritu dira enpresako abokatuak. Langilearen egoera ez zaie axola, langilearen bizia apurtuta geratzen da eta enpresaren estrategia ahalik eta diru gutxien ematea da.

Hau guztiari, orain krisia gehitu behar zaio. Orain arte zerbait inbertitzen zen baina orain krisiarekin lehen murriztu den diru-partida prebentzikoa da. Honek istripuen igoera dakar, zenbat eta segurtasun gutxiago, istripu gehiago. Langileak ere, lana galtzeko beldurrez isildu eta harriskatu egiten du, segurtasuna exigitu beharrean. Bi peztagatik jendeak beraien bizia jokatzen du.

Istripuen kopurua jeitsi egin zela esatera ausartzen dira gure enpresan... bi urtetan EREn egoteagatik astean 3 egunetan lan egiten genuenean hain zuzen ere. Kopurua jeitsiko zen baina portzentaiei begiratuta ondorioa bestelakoa da.

Aurtengo Lan Osasunaren Nazioarteko egunean euskal gehiengo sindikalak ELA-LAB- STEE/EILAS-EHNE-HIRU "langileon osasunari eraso gehiagorik ez. BADUGU ALTERNATIBA" zioen.

Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua aldarrikatzen dugu euskal langileriaren beharrei erantzungo dien eredu prebentibo propioa garatzeko tresna gisa.

Hitzarmen kolektiboak sinatzerakoan KPIaren igoeraz aparte hainbat puntu garrantzitsu daude gure lan-ziurtasuna, osasuna eta kalitatearekin lotura zuzena dutenak eta horiengatik ere borrokatu behar dugu. Pertsonen osasuna lehenetsiko duen prebentzio sistema publikoa eskatzen dugu.

Gaixotasun profesionalen azterketa eta onarpenean aurrera egin behar da. Bada garaia langile afektatuei arduraz erantzutekoa.

Gure lanean 67 urterekin jubilatzea... orain egiten ditugun lanak 67 urterekin egitea ezinezkoa da eta gutxiago baldintza hauetan. Lan erreforma eta pentsio sistema atzera bota behar ditugu.

Ikuskaritza eta mutuen kontrol zorrotzagoa egin behar da. Nola da posible, mutuek superabit-ak izatea?

Bukatzeko...

Lanean ditugun egoerak salatu eta borrokatu egin behar ditugu zerbait lortu nahi badugu. Egoera ez da erreza baina garbi izan behar dugu lan istripu guztiak ekidin daitezke eta hori lortzera goazela.

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

K106 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 10/05/11 03:21 Página 17

XXVI. OKELAR BERTSOPAPER SARIKETA

MUTRIKUARROK... ORA PRO NOBIS!

Doinua: Betroiarena
Egilea: IMANOL LEKUNBERRI ARETXABALETA (Mutriku)

1
Goizeko zazpiretan
behar du esnatu
ordu biak dira ta
ezin lo hartu
leihoak ongi itxi
pertsianak bajatu
baina gaupaseroa
berdin entzuten du
igual da baxaku
edo ta zapatu
hola ezin jarraitu
behar du aldatu
soluzio bakarra du
kexa bat sartu. (bis)

2
Ordu berdina eta
lekua berdina
orain beste aldea
zuk imagina
basoa bete hustu
milatan egina
kristoren euforia
sekulako grina
kaskarreko mina
loditua mina
ta klaro jakina
ixildu ezina
zuk ze eingo zendun ba
bertan bazina.(bis)

3
Baina ezat inporta
nire parrandia
ezat inporta inok
lo gutxi etxia
iruditzen zatena
benetan tristia
arazua konpondu
ezin izatia
izanik herria
holako txikia
ez al da tristia
hola ibiltzia
adostasun batera
ez ailatzia. (bis)

lea artibai ikastetxea
Etorkizuna Eraikiz
formazioasustapenalaneratzeaikerketa

BATXILERGOA
Matrikula: ekainak 20—uztailak 5

PRESTAKUNTZA ZIKLOAK
Aurrematrikula: ekainak 1-10

Matrikula ohikoa: uztailak 4-8
Matrikula ez-ohikoa: uztailak 21-26

INGENIARITZA: DISEÑO E INNOVACION
Matrikula zabalik uztailaren 15era arte

lea artibai ikastetxea
Xemein etorbidea 19 - 48270 MARKINA-XEMEIN
Tfna. 94 616 90 02 www.leartik.com sgabiola@leartik.com

Paskoal eta Martzelino, Olatz aldeko aitonak

“Kaixo, zaharra!” dio zaharrenak besteari, bakoitza bere makuluak lagunduta Goienetxeko atarian aurrez aurre gertatu direnean. Paskoal Mugertza eta Martzelino Albizu, Iturritza eta Etxerre baserrietako jaunak. Olatz bailarako adintsuenak laurogeita zortzi eta laurogeita sei urterekin, urte eta erdiko aldea, eta nostalgia apur batez begiratzen dute Jaungoikomendi aldera, hain azkar, hain trebe eta hain temati igarotzen baitzituzten malda gogor horiek Etxebarriko lorategiko bi ahizpa gazte ederrez maiteminduta, euren baserrietara ekartzea lortu zuten arte.

Aspaldiko partez, Kalaputxi tarteko, kontu kontari jartzekotan dira. Bata bestearengandik hurbil bizi arren gero eta gehiago kostatzen zaie elkartu eta solas aspertuetan aritzea. Lan asko egindakoaren ondorioak: burua argi, baina zangoak makal.

Zuen baserrietan jaioak al zarete?
Baietz dio Paskoalek; Martzelino, ostera, Lasturko Oitxazahar baserrian jaio zela dio, eta gurasoek Etxerre baserria erostean, 4 urte zituela, etorri omen zen, oinez amonari eskua eman da.

San Isidroak ditugu gainean. Nola oroitzen dituzue orduko festak?
Oso ezberdin ospatzen genituen gaurkoekin konparatuta. Familia bildu eta mahai inguruan izaten ziren festak. Bola jokorik ere izaten zen, zeren, gogoratzen naiz -dio Paskoalek- arratsalde osoa bolak biltzen jardun ondoren, txoritxiki (orduko 5 zentimo) bat propina nuela, pozik bueltatu nintzela behin baserrira. Baina gu koxkortu ordurako bukatu ziren festak: gerra piztu zen, eta akabo! Zelebratu zelebratzen zen eguna, meza eta prozesioa elizatik eta Haritzaetxeberrieta ingurura eginez, baina gazteak falta ziren eta giroa ezberdina zen.

Nola bizi izan zenuten gerra bailaran?
Goi aldetik, Arno aldetik ibili ziren tiroak. Hemen, behe aldean, ez zen tirorik izan, baina nafarrak maiz etortzen ziren baserrietara, eta zer eskatu hura eman beharra zegoen, berdin oilasko, gosari, bazkari…, jakina, ez genuen asko eta ez dagoen lekutik ezin asko eraman. Gu hiru anaia ginen, dio Paskoalek, zaharrena Afrikan zegoen soldadutza egiten, eta han igaro zuen gerra denbora guztia.

Nolakoa zen zuen bizimodua? Zertan aritzen

K106 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 10/05/11 03:22 Página 19

zineten?
Baserri lanetara zuzendua. Artoa eta garia ziren gehien ereiten zirenak, baserriko euskarri, eta hartan jarduten genuen baratza eta animalia batzuekin. Garia erein udazkenean, udaran auzolanean uzta bildu, eta azaoak eginda pixka bat lehortzen utzi ondoren, metatu. Uzta biltze lanak bukatzen zirenean, txanketean aletu; beranduago makinekin jotzen zen. Artoarekin ere antzeko; marinelek egiten ziguten arto zuriketa, eta gure lana izaten zen uzta bildu eta aletzea. Irina egiteko Larruskaingo errotara eramaten genituen zakuak. Gerra inguru horretan gauez, zeren, harrapatuz gero, dena konfiskatzen baitzuten guardia zibilek. Gurean, dio Paskoalek, garitik gutxi jaten genuen. Maizterrak izanik urteko 35 anega (50 kilo) gari eta 11 anega arto ordaindu behar genizkion nagusiari, beraz talo eta morokiletik gehiago izaten zen.

Igande eta jai egunetan mezatara joan, ondoren eliza atarian solasaldi batzuk egin, eta berriro baserrira: horixe izaten zen gurea. Beranduago Bergarako abade bat azaldu zen denbora batez meza ematera, eta eskola etxea ordurako erabiltzen ez zenez, hark bultzatu gintuen hura txukundu eta elkarte bezala atontzera. Auzolanean egin genuen, eta, ordutik aurrera, meza ondoren hara joaten ginen berriketa mordo bat eginez txakolina eta gailetak hartzera, eta egoki-tzen zenean, musean desafioka. Hori ere maiz.

Erromeria konturik ez duzue aipatu. Nola aurkitu zenituzten emazteak, kasualitatez?
Den-denak kontatzea ere… Larruskainen erromeria izaten zen, eta, denbora pasa edo, hara joan eta Etxebarriko bi ahizpekin topo egin, eta laguntzera joan behar Etxebarriraino, eta… Bidaia asko egin genituela Jaungoikomenditik Larruskaina eta Etxebarriraino, eta buelta ondoren Olatza. Ez zegoen orduan ez, gaur dagoen aldapa.

Eta zu Martzelino noiz hasi zinen zezenekin?
Jauregi baserrikoak ibiltzen ziren lehenago zezenekin, eta haiek uztean hasi nintzen ni poliki-poliki. Aldapatsuak dira gure lurrak, eta zerbait berriari heldu beharra zegoen. Horrela 30 urte nituela heldu nion gogor, eta lan asko egin dugu. Berrogei bat urte nituenean egon ziren zezenak gorenean 1965 inguru horretan. Hiru eta lau herri ezberdinetan egon izan gara zezenekin egun berean; gaua ere kontuan izanik, orduan gauez zezenak botatzea ere baimenduta baitzegoen.

Hemengo zezenekin hasi ginen, baina ondoren zezen nafarrak erosi nituen, baita Azpeitira ekarritako “sobreroak” ere. Horrela, zezen indartsuak hasi genituen, plaza eta kaleetan zehar erabiltzeko aproposak. Gogoan dut zezen gris bat, Azpeitian erositakoa, Sopelan bereak eta bi egin zituena. Kategoriako zezena!

Maizter izan zara Paskoal, baina gaur baserriaren jabe zarete…
Bai. Ez dakizue nolako poza hartu nuen gure seme Faustok baserria erosi zuenean. Gure aurrekoak bizi izandako etxea, halako baten… geurea! Gernikako idazkaria zen jabea, eta haren emaztea, Bittori, mutrikuarra. Lege berri bat onartu zuten maizterrak baserri-jabe bilakatzea errazteko, eta haren babesean erosi genuen baserria. Beranduago Lekonderekin ere jabetu gara, eta orain …, nahiko lan! Ezin denetara iritsi. Hala ere, hor ikusten ditut, euren lanez aparte, semea eta Ugaitz eta Aratz bilobak etxaurrean jo eta su aizkoran. Plazetara joateko gai ez naizenez, telebistaz ikusten ditut errainaren alboan jarrita: hau da Goierritik gure etxera agertu den aingerua; primeran zaintzen nau.

Lan arruntak komentatu duzue arestian, baina mendian beste lanik ere egiten zenuten, ezta?
Bai, erein eta uzta jaso tarte horretan saiatu behar izaten ginen beste lanetan ere. Ikazkin lana zen horietako bat; Martzelinok nik baino gehiago jardun du horretan. Mendira joan txondorra egin eta sutan izaten genuen egurra egosi arte. Gutxi gora behera zazpi egun behar izaten zituen egurrak ikatz bihurtzeko, eta egun horietan adi egon behar zen txondorrari begira. Alde bat irekia zuen txabola egiten genuen alboan eta handik egoten ginen gau eta egun jagole. Ateratako ikatza saldu egiten genuen bai tailerretara, bai jatetxeetara ere.

Karegintza zen beste jardueretako bat. Hurbil daukagu kare-haitza eta baserri inguruan egiten genituen karobiak mendiari janda. Hiru egun behar zituen haitzak birrintzen, eta ondoren ongarritzat erabiltzen genuen geure lurretan, eta saldu ere bai herriko eta inguruko igeltseroei. Zazpi urtetan zazpi karobi bete nituen sasoi batean, dio Paskoalek.

Eta zer egiten duzue orain? Zer asmotan zarete aurtengo San Isidroetarako?
Zer egiten dugun? Urteak pasatu ahal bada. Lehen noizbehinka elkartzen ginen kontu kontari, baina hori ere gero eta gutxiago, kotxean sartzea ere kosta egiten zaigu-eta. Eta San Isidroetan ez dugu uste elizara ere ailegatuko garenik, jan eta edan egingo dugu zelebratzeko, eta hori nahiko guretzat.

Beno, Paskoal eta Martzelino, ondo-ondo segi eta bizipozez izan.

K106 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 10/05/11 03:22 Página 20

ZORIONAGURRAK ZORIONAGURRAK ZORIONAGURRAK



PEPE eta NAHIKARI
Zorionak aitxonari eta sorginari, maiatzaren 6an 63 eta 2 urte bete dutelako. Zorionak eta segi horrela!

PILI *Katxo*
Maiatzaren 23an... urte gutxi batzuk, Zorionak.

MAIDER
Berandu bada ere belarriak prest eduki apirilaren 21eko partez. Zorionak eta muxu asko-asko.

NATI
Maiatzaren 18an preparatu mexendia dan-danok joango gea eta.

JOSEBA eta MARGARITA
Berrogeita hamar urte elkarrekin! Mila zorion bihotz-bihotzez etxekoen partez.

XUA
Zorionak eta bost matxo haundi etxeko printzesarentzat maiatzaren 9an. Egun polita pasa

ANGIE
Zorionak eta marrubizko muxuak etxeko sorgin bihurrixari, danon partez eta batez ere Iratiren partez, maiatzaren 7an 5 urte bete dituzulako.

ESTEBAN
Gure aitatxori zorionak urte berri bat sartuko duelako motxilan. Segi holaxe!

LEIRE eta MALEN
Zorionak bikote, zuen urtebete-tze egunak igaro direlako. Muxuak danon partez!

KOLDO
Maiatzaren 28an 12 urte! Ama, aita eta Aitzolek Zorionak



DAMARY SARAHY
Mutrikutik Hondurasera zorionak! Asko maite zaitugu! Ama Gloria eta izeko Norma.

GARAZI
Mutrikuko familiak ez du ahaztu maiatzaren 11an zure eguna dela. Ondo-ondo pasa eta muxuak denon partez.

IGOR
Zorionak Igor, besarkada eta matxo haundi bat gure futbolari eta kirolari bikainari. Aupa errealа!

K106 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 10/05/11 03:22 Página 21

1966an, “Etxekalte” arrantzontziko tripulazioko batzuk A Coruñako portuan “Twin Venture” bela-ontzian. Goitik behera eta ezkerretik hasita: Ramon Galparsoro (Sastre), Anbrosio Arrasate (Nakarra), Jexus Basterretxea (Txordo), Blas Agirregomezkorta, Jose Mari Landa (Kalamax), Miel Goenaga (Xobiet), Manolo Amado, Jose Txurruka (Ongitzaile), zumaiar bat eta laredotar bat.

1943an Egaña lantegiko langile batzuk.

IÑIGOBELEN
konde 3 - tfnoa. 943603701
argazki lanak
erretoke digitala
diseinu grafikoa
fotokopiak zuribeltzean/koloretan
euskal preso eta iheslariak etxera

AIBOKA
KAFETEGIA - OKINDEGIA
Domingo Ibaibarriaga, 5 - Tel. 943 60 46 73 - MUTRIKU

K106 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 10/05/11 03:22 Página 22

Eskolarteko Antzerki Jardunaldiak

AKELARRE Antzerki Taldea
Zabiel Kultur Etxean

Maiatzak 15, domeka 19:00etan
- Norbait behar da pisua konpartitzeko
- Urtean behin

Maiatzaren 30tik ekainaren 3ra

ASTE MUSIKALAren barnean

MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN XI. KONTZERTUA

MAIATZAK 28

EUSKAL DANTZAK ERROMERIA

Gure Ametsa DT

ZINE FORUM

Ostiraletan doain Zabielen

MAIATZAK 13
TERMINAL
(Aitzol Aramaio)
MODIGLIANI

MAIATZAK 27
YO CRISTINA F.

EKAINAK 10
MUTRIKUKO FILM LABURREN SARIKETA

ZAINTZAKO BOTIKAK

MAIATZA

13tik	**15**era	Otxagabia
16tik	**19**ra	Zalduegi
20tik	**22**ra	Burgoa
(zapatu goizean, Apraiz)		
23tik	**26**ra	Otxagabia
27tik	**29**ra	Apraiz
30 eta **31**		Burgoa

EKAINA

1 eta **2**		Burgoa
3tik	**5**era	Zalduegi
(zapatu goizean, Otxagabia)		
6tik	**9**ra	Apraiz
10tik	**12**ra	Otxagabia
13tik	**16**ra	Zalduegi
17tik	**19**ra	Burgoa
(zapatu goizean, Apraiz)		
20tik	**23**ra	Otxagabia
24tik	**26**ra	Apraiz
27tik	**30**era	Burgoa

MENDI IRTEERAK

MAIATZAK 22
URKIAGA-ADI-URE-PEL (BURDIN KURUTZ MT)

EKAINAK 5
ARNOKO VII. MENDI LASTERKETA

EKAINAK 19
OJO GUAREÑA-DULLA-PUENTEDEY (BURGOS)

Ntra. Sra. de Begoña EHORZKETA

Iriagirre z/g

Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (24 ordu)

Zure establezimenduaren berri mutrikuar guztiei emateko...

KALAPUTXI

Luardo etxea, behea · Barrenkale, 12 · Tel. 635748393
kalaputxi@topagunea.com

Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta

IMH

ingeniaritza imh ei.cesi école d'ingénieurs

Heziketa Zikloak eta Txandakako Ingeniaritza



Ate irekiak: maiatzaren 28an, goizeko 11:00etan

Etortzeko deitu 943744132ra edo apunta zaitez www.imh.es orrian
IMH, Azkue auzoa – 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

Vitoria Optika

AUDIOLOGIA ZENTROA

……Osasun sailak homologatutako audiologia zentroa……
……Audioprotesista egunero dago zentroan……
……Audiometriak doan, kabina intsonorizatuan……
……Teknologia berrienak erabiltzen ditugu……
……Etxean ere atenditzen dugu (Graduazioak eta Audiometriak)..

Tel. 94 613 41 38
e-mail: mvitoria@cnoo.es

Iparkale, 1
ONDARROA

K106 M24:kalaputxi aldizkaria.qxd 10/05/11 03:22 Página 24